

Honako Idazkia bihoa bere tramiterako

..... Sailera

Pase el presente escrito al Negociado de

..... para su trámite

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....



ehbildu

UDAL KONTRATUETAN EKONOMIA SOZIALAREN IRIZPIDEAK APLIKATZEAREN ALDEKO MOZIOA

Kontzeptuaren jatorrizko zentzuan, pertsonen eta jendartearen beharrianak asetzeko baliabide urrien erabileraz aritzen den jarduera da Ekonomia. Hau da, Ekonomiaren erdigunean ez da dirua edota diru-irabazia kokatzen, pertsonak eta jendartea baizik. Hau da Ekonomia Sozialaren muinean dagoen printzipioa eta hau da Administrazioaren kudeaketa gidatu beharko lukeen irizpide nagusiak. Ez da hori gertatzen askotan eta Udalaren kontratazioetan diruak bai herritarrei ematen zaien zerbitzuaren kalitateari eta bai langileen lan baldintzeei gailentzen dizkiete.

Azkenengo adibidea Udako Txokoak zerbitzua kontratatzeke lizitazioan gertatu da. Lasarte-Oriatik Lasarte-Oriara, helburu herritar eta sozial batez, hizkuntza, hezkuntza eta aisialdia proiektu integral batean uztartzen dituen diru-etekin asmorik gabeko Ttakun Elkarteak sortu eta urtetan eta urtetan garatutako Udako Txokoen lizitazioa galdu du diru-etekin lortzeko asmoa duen enpresa multinazional baten aurrean. Eta ez du galdu bere proiektua teknikoki eskasagoa zelako; kontrakoa, askoz hobea da: txango gehiago planteatzen ditu, jangela zerbitzua du, hobeto egokitzen da udalerrri eta eskualdera, lasartearren ongi baloratutako urtetako eskarmentua... puntuazio teknikoak argi frogatzen du. Baina balorazio ekonomikoan galdu du, 13.494,00 €-ko aldea egonda (BEZ-a kontutan hartuz, 2.367,90 € baino ez ditu aurreztuko Udalak). Diruak kalitateari irabazi dio. Dirua pertsona eta jendartearen gainetik.

Eta ez da lege kontua bakarrik, borondate kontua ere bada. Europako Direktiben transposizioaren ondorioz, estatuko kontratazio legeak bidea ematen die Udalei "mejor póstor" delakoa edo diru-eskaintza onenaren kulturari aurre egiteko. Paradigma aldatu da kalitatearen eta prezioaren arteko harreman egokiagoan oinarritzen dena, ez prezio merkeenean. Administrazioak oro har, eta udalak kasu honetan, baditu mekanismoak bai klausula sozialen bidez eta bai balorazio ekonomikoa egiteko ezartzen diren irizpideen bidez aipatutako helburua lortzeko.

Hau guztia kontutan hartuta, Lasarte-Oriako Udal Batzarrak ondoko akordioa adosten du:

1.- Lasarte-Oriako Udalak, bere autonomia baliatuz, pertsonak eta jendartearen beharrianak lehenesten dituen ekonomia sozialaren irizpideak jarraituko ditu bere obra edo zerbitzuen kontratazio guztietan. Horrela, legeak ematen dituen aukerak baliatuz, balorazio teknikoa lehenetsiko du prezioaren gainetik puntuazio pisu gehiago emanez, azken honi %30-ko pisua baino gehiago ez emanez.

Lasarte-Orian, 2018ko maiatzaren 2an